

FUNTSEZKO BALIABIDEAK

- **BALIABIDE UKIGARRI ETA UKIEZINAK**

- Baliabide ukigarriei erreferentzia eginez, kasu honetan ez daude ukigarriak diren baliabide asko, izan ere, aplikazio digital bat da eta ez da fisikoki existitzen beraz, oso urriak dira. Zuzenean ez baina neurri batean ukigarriak izan daitezkeenak dira adibidez, mugikorrek, tablet-ak, ordenagailuak... aplikazio horretan bertan aritzeko erabiltzen diren gailu teknologiko guztiak.
- Baliabide ukiezinei buruz hitz egiterako garaian, esan daiteke ukigarriak baino azkoz gehiago daudela. Hasteko, gazteak garenok esperientzia puntu bat daukagu teknologia berrien eta aplikazio informatikoen munduan, izan ere egunero erabiltzen ditugu, bai ikastolan, aisian, beste pertsonekin erlazionatzeko eta hitz egiteko... Neurri batean antzekoa dena baina askoz baliabide gutxigo dituen " Shazam " aplikazioa izan daiteke, aplikazio hau erabilia esperientzia dugu eta nola funtzionatzen duen badakigu, baina gure helburua ez da hain gutxirekin gelditzea baizik eta lehenago komentatu den bezala beste edozein ikusentzunezko detektatzen duen bat sortzea. Orokorrean nahiko trebeak gara eta aplikazio mota hauek erabiltzerakoan ez ditugu zailtasun gehiegi, beraz puntu horietan bai esperientzian baita trebetasunaren arloan ondo ibiltzen gara. Gure enpresak kontaktu zuzenak izango ditu beste aplikazio internazional eta erraldoien sortzaile eta langileekin, hain zuzen ere YouTube, Instagram eta Spotify, izan ere gure aplikazioak beste aplikazio handi guzti horiek biltzen ditu, beraz baimenak, egile-eskubideak, patenteak, ikustaldi edo diru-iturrien gaiak eztabaidatzeko, kontaktua presente egongo da erlazio oso on bat edukiz.